Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

4712

EBAZPENA, 2009ko martxoaren 10ekoa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Zerbitzuen zuzendariarena, Fateh Gharbaoui jaunak SD1-02816/04 espedientea dela-eta aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa ebazten duena.

AURREKARIAK

1.– Jardun hauen oinarria Fateh Gharbaoui jaunak 2004ko abuztuaren 20an etxebizitza-eskatzaileen Erregistroan erregistratzeko egindako eskaera da.

2.– 2008ko abenduaren 1ean, Arabako Lurralde Ordezkariak ebazpena eman zuen, eta babes ofizialeko etxebizitzen eskatzaileen erregistroan erregistratzeko eskaerari baja eman zion, lau urte igaro ondoren ez berritzeagatik.

3.– 2009ko urtarrilaren 27an, Fateh Gharbaoui jaunak gora jotzeko errekurtsoa jarri zuen aurreko ebazpenaren aurka, ez baitzegoen horrekin ados, eta alegatu zuen ez zuela berritzeko gutunaren jakinarazpenik jaso. Hori guztia zela-eta, errekurritutako ebazpena berriz aztertzeko eskatu zuen.

Aurrekari horiek kontuan hartuta azaltzen dira honako

OINARRIAK

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Zerbitzuen zuzendariari dagokio aztergai dugun gora jotzeko errekurtsoa ebaztea, eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa ezartzen duen Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 15eko 373/2005 Dekretuan xedatutakoaren arabera aztertu da.

2.– Errekurtsogileak interesatua dela egiaztatu du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 31. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

3.– Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 115. artikuluak ezartzen duenez, errekurtso arrunta aurkezteko epea hilabetekoa da eta epe horretan errekurtsorik aurkeztu ezean, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako.

4.– Aztergai dugun kasuan, errekurritutako ebazpena 2008ko abenduaren 1ean jakinarazi zen Arabako Lurralde Ordezkaritzako iragarki-taulan, eta beraz erre-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

4712

RESOLUCIÓN de 10 de marzo de 2009, del Director de Servicios del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se resuelve el recurso de alzada presentado por D. Fateh Gharbaoui en el expediente SD1-02816/04.

ANTECEDENTES

1.– Las presentes actuaciones tienen su origen en la solicitud de inscripción en el Registro de solicitantes de vivienda formulada por D. Fateh Gharbaoui, con fecha 20 de agosto de 2004.

2.– Con fecha 1 de diciembre de 2008 recae resolución del Delegado Territorial en Álava por la que se da de baja la solicitud de inscripción en el Registro de solicitantes de vivienda de protección oficial por no renovación cuatrienal.

3.– Con fecha 27 de enero de 2009, D. Fateh Gharbaoui interpone recurso de alzada contra la anterior resolución mostrando su disconformidad con la misma, alegando que no ha tenido notificación de la carta para renovar. Solicita la revisión de la resolución recurrida.

Sobre la base de estos Antecedentes se formulan los siguientes

FUNDAMENTOS

1.– El Director de Servicios del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales es el órgano competente para resolver el recurso de alzada que se examina a tenor de lo dispuesto en el Decreto del Gobierno Vasco 373/2005, de 15 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

2.– El recurrente acredita la condición de interesado a los efectos prevenidos en el artículo 31 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– El artículo 115 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, establece que el plazo para interponer el recurso de alzada es de un mes, añadiendo que transcurrido dicho plazo sin haberse interpuesto el recurso, la resolución será firme a todos lo efectos.

4.– En el supuesto que nos ocupa, la resolución recurrida, fue notificada con fecha 1 de diciembre de 2008, en el Tablón de Anuncios de la Delegación Territorial

kurtsoa aurkezteko azken eguna 2009ko urtarrilaren 2a izan zen.

Orain errekurtsoa jarri duenaren errekurtsoa Arabako Lurralde Ordezkaritzan 2009ko urtarrilaren 27an aurkeztu zela kontuan izanik, epez kanpokoa da.

Azaldutako oinarriak, adierazitako xedapenak eta horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak aztertu ondoren, honako hau

EBATZI DUT:

Fateh Gharbaoui jaunak Arabako Lurralde Ordezkariak SD1-02816/04 espedientean emandako Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoa ez onartzea, dagozkion zuzenbidearen araberako terminoetan berretsi behar baita Ebazpen hori.

Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du, ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez badaiteke ere, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian. Horretarako epea jakinarazpen hau jasotzen den egunaren biharamunean kontatzen hasi eta bi hilabetekoa izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 10a.

(Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2009ko urtarrilaren 23ko Aginduz, zeinaren bidez Zerbitzu zuzendariari emandako eskumenak eta funtzioak bere gain hartzen dituen (2009ko urtarrilaren 26ko EHAA).

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

en Álava, por lo que el último día para presentar el recurso finalizó el 2 de enero de 2009.

Teniendo en cuenta que el recurso del ahora recurrente fue presentado en la Delegación Territorial en Álava el día 27 de enero de 2009, resulta extemporáneo.

A la vista de los Fundamentos expuestos, las disposiciones citadas y demás concordantes y de general aplicación,

RESUELVO:

Declarar la Inadmisibilidad del recurso de alzada interpuesto por D. Fateh Gharbaoui contra Resolución del Delegado Territorial de Álava recaída en el expediente SD1-02816/04, en cuyos términos ajustados a Derecho ha de confirmarse.

La presente Resolución agota la vía administrativa, si bien cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de los de Vitoria-Gasteiz en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la notificación de esta Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de marzo 2009.

(Por Orden de 23 de enero de 2009 del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales por la que se asume el ejercicio de las competencias y funciones atribuidas el Director de Servicios, publicada en el BOPV de 26 de enero de 2009)

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.